



Alkarbidek –Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, 14.000 familiarengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

“ESAIDAZU EUSKERAZ/DÍMELO EN EUSKERA” EUSKARA FAMILIA BIDEZ ONDORENGOETARATZEKO KANPAINA

Bizkaiko 14.000 familiak baino gehiagok jasoko duten “*Esaidazu Euskeraz-Dímelo en Euskera*” leloa daraman kanpainaren helburua, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea da. Alkarbide bilguneak koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, egitasmo hau martxan jarriko da 33 udalerritan eta 3 mankomunitatetan. Horretarako, ume jaioberriak eta 1-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak eskainiko zaizkie; abestiak, euskarazko oinarrizko hitzak eta esamoldeak ikasteko *KU-KU* liburuxka CDarekin eta hainbat opari (adur-zapia eta askari poltsa) ere banatuko zaizkie.

Ume jaioberriak eta 1-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak izango dira “*Esaidazu Euskeraz-Dímelo en Euskera*” leloa daraman kanpaina honen hartzaileak.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako egitasmo honen helburu nagusia da euskara belaunaldi belaunaldi transmititzeak daukan garrantzia nabarmentzea.

Kanpaina honetan parte hartu duten 33 udalerrietako eta 3 mankomunitateetako 14.000 familia izango dira kanpaina honen hartzaileak. Hartzaile horiek hizkuntza geroratzek duen garrantziaz sentiberatzeko hainbat euskarri jasoko dituzte.

Kanpainaren edukiak

Kanpaina honetan osagai hauek banatuko dira:

Ume jaioberriak dituzten gurasoentzat:

Gutuna: Alkateak edo beste udal ordezkariaren batek sinatutako gutuna. Gutun horretan gurasoei zorionak emateaz gain, euskararen transmisioak duen garrantzia azaltzen da.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Hiru-orrikoa: Umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak batzen ditu. Aholku horiek gurasoen hizkuntza-gaitasunaren araberakoak dira.

Oparia: Adur-zapia.

1-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoentzat:

Ume jaioberriak dituzten gurasoei moduan, **gutuna**, aholkuak batzen dituen **hiru-orrikoa** eta oparia bidaliko zaizkie, baina kasu honetan **askari-poltsa** izango da oparia.

Udalerrri batzuek material horri laguntzeko *KU-KU* liburuxka berrargitaratu dute, liburuxka hau orain dela lau urte argitaratu zen lehen aldiz, baina izan duen harrera ikusita, aurten berriro argitaratzea erabaki da. Liburuxka honetan, gurasoek euren seme-alabekin hitz egiteko oinarritzko euskarazko hitzak eta esamoldeak batzen dira, baita umeentzako abestiak.

Liburuxkarekin batera, CDa ere banatuko da. CD horretan liburuxkan agertzen diren abestiak batzen dira, gurasoek letra aurrean dutela umeekin abesteko.

"Esaidazu euskeraz- Dímelo en euskera" kanpainen parte hartu duten 33 udalerrri eta 3 mankomunitateak honako hauek dira:

Abadiño, Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berango, Bilbo, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Gamiz-Fika, Getxo, Gordexola, Laukiz, Leioa, Lekeitio, Lemoa, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mundaka, Muskiz, Orozko, Ortuella, Santurtzi, Urduña, Ugao-Miraballes, Zaldibar eta Zeberio. Mankomunitateak hauek dira: Enkarterri, Txorierrri eta Uribe Kosta.